

# ANAITASUNA

B I Z K A I A

170 gn. zenb. — 1968, urrillak 15 — 4 pta.

Torre, 3, 1.º - Bilbao (5). Tel. 24 14 67

## "HUMANAE VITAE"

### Katolikuen eritxiak

«Humanae Vitae» entziklikeak, askotariko eritxiak sortu erazo ditu mundu guztian zear. Ez da izan arritzekoa.

«L'Osservatore Romano»k diñoanez, eskutitz asko eldu dira Vatikanora, Aita Santuaren entziklikea laudatzen eta gortzen dabenak. Gutun\* orreek bialdu dituen artean aurkitzen dira: Urbani kardinala, Italiako obispoen ordezkaria, Gilroy kardinala, Sydneyko artzobispa, Boston, Los Angeles eta Washingtoneko artzobispoak, Manilako Santo Tomas Unibersidadeko irakasleak eta abar. Baiña asko izan dira izan be, mundu guztian zear entziklikeak sortu erazo dituan ezbaiak eta kritikak.

Gaur egunean, interes aundia dauko edonon jaiotzen auziak. Orregaitik, Aita Santuak gizon guztieri zuzendu deutse bere eskutitza. Eta mundu guztitik eta gizamailla guztietarik\* etorri dira eritxiak. Eritxi batzuk alde, beste batzuk kontra. Jente asko, pozaren pozez, atsegin urtika\*; beste asko, ez otz ez bero, «eguna beioa\* ta gaua betor»; beste enparaduak, siñistu eziñik, turdiduta.

Katolikuen artean be, desbardiñak dira eritxiak. Eta desbardintasun onetan, ba dauka zerikusirik geografiak. Nongoak direan katolikuak, alakoxeak dira gitxi gorabeera eritxiak. Errialde anglo-saksonetan, sakon sustraituta dago aspalditik jaiotzen kontrola, bai gogoetan eta bai ekanduetan\*. Errialde orreetarik\* etorri dira kri-



Aita Santua, entziklikea egiten lagundu deutsoenakaz.

tika gogorrenak entziklikearen kontra. Errialde latinoetan barriz, bete betean jarri dira geienak Aita Santuaren alde; batzuk, erdizka; beste batzuk ostera\*, badaezpadan-edo, ixilik geratu dira. Irugarren munduko errialdeetan, gobernuan dagozanak esan dabe, Aita Santuaren dotriña guztiz estimagarria izanarren, eurak aurrera eroango dituela, oraiñarte legez\*, jaiotzak neuñtzeko planak; erriko jentea barriz, zuur eta begiratu agertu da, auzi onetan argi geiago egiñarte.

Obispoak, jakiña, entziklikearen alde dagoz; euretariko batzuk, orregaitiño\*, argi ta garbi autortu dabe, gauza gatxa izango dala erriko jentearen obedientzia

lortzea, Aita Santuaren irakaspena gai\* onetan utseziña ez da ta. Teologuak, «zabalenak» beintzat, auzia oraindiño ebatzi\* barik dagoala diño. Bardin esaten dabe abade askok eta askok, Baiña laikuak izan dira, mundu guztian zear kritika gogorrenak egin dituenak, auzi onetan beste iñok baiño geiago eurak jokutzen dabe ta.

Beste kristiñauak, arrituta geratu dira Aita Santuaren intransigentziaren aurrean, euren arritasuna neurrizko berbakaz adierazo dabe baiña. Prentsea barriz, polito baliatu da auzi onegaz, al danik zarata ta probetxurik geien atarateko. Gobernuak, ia danak, ixilik egon dira eta oraindiño ez dabe agertuki\* emon eritxia. Medikuak, geienak, kontra jarri dira.

Auxe da, gitxi gorabeera, «Humanae Vitae» entziklikea dala ta, oraiñarte agertu direan eritxien egoera.

● "HUMANAE VITAE" ENTZIKLIKEAREN OSTEAN

6-7 gn. orriald.

## NABARNIZ

### EZKONTZAK

Agostuaren 2'an, Enekuriko Ama Fatima-koaren oiñetan ezkondu ziran Onaindi baserriko Maria Luisa Goiriena ta Aiangizko Jose Olaeta.

Agostuaren 24'an, bertoko eleizan, Maria Bitoria Ikazuriaga ta Busturiko Sekundino Mestraitua.

Iraillaren 14'an, bertoko eleizan, Eufrasia Ikazuriaga ta Belendizko Iñazio Arrien.

Zorionak danoi, eta luze luzea izan daki-zuela artu dozuen biziera barria!

### GAIXORIK

Bilbaoko Anduiza osategian aurkitzen da Bitoriano Etxebarria, Nabarnizko errementari entzutetsua.

Ainbat ariñen osatu daitela opa deusat, eta bere seme-alabai laguntzen deusat naitzue onetan, batezbe bere alaba Nairi.

### JAIOZEA

Onaindi baserriko Andresa Arrate ta Emilio Goirienak, semetxu bat izan dabe, zazpigarrena. Lau seme ta iru alaba ditue. Txikitxuari, Mikel euskal izen polita ipiñi deusoe.

Zorionak, senar-emazte adiskideok! Goiko Jaunaren onesprenak zuekin dozuez, olako lora sorta ederra ornidu dozuelako.

### ERRIRANTZ

Ipar Amerikatik etorrira, emen agurtu dogu Alejandro Arriola. Betiko lez, mutil ederra etorri da.

Ondo etorria ta zorionak. Ta kontuz ibilli, zeuk nai baiño len neskatillaren batek sarea bota ez deizun.

### HABITU JAZTEA

Iraillaren 3'an, Zarautzen izan dira Merikaxebarriatarrak, euren semetxu Anjel Mari, fraille jantzi zan eguna ospatuten. Pozik etorri dira.

Zorionak, Anjel Mari! Aldatz gora zoaz, gazte. Baiña ez zaitez jarri atzerantz begira. Beti aurrera ta gora. Goian dago zelaia ta atsedena. Ara eldu arte ekin, egunen baten zeure abots polita entzun daigun, erriko eleiza eder onetan «Jauna, zuekaz» esaten doazela.

Arantzazuko Amari ta Aita San Prantziskoari eskatuko deusat, euren seme zintzoa

izan zaitezala; baiña euskerea aaztuta itxi barik izan daitela.

### ERRIKO JAIAK

Beti bezela\*, irailaren\* 8 ta 9'an ospatu doguz erriko jaiak.

Andra Mari egunean, amaika ta erdietan izan genduan meza nagusia. Aita Gotzon Urrutia, erriko semea, izan genduan meza emoilte ta izlari; laguntzailleak, Morga ta Belendizko abade juanak; Don Rikardo, erriko abade jauna, meza zuzentzaille; eta Pedro Mari Garatea, organua jotzen.

Bigarren egunean, Morgako abade jaunak emon eban mezea; baita itzaldi ederra egin be, egun orretan arimen eguna ospatzen dogu ta.

Eleizatik kanpora ez dago zer esanik. Igaz, Gernikatik bialdu euskuezan ezpata dantzariak eta baita hertsolariak be; aurtzen, eguraldi ederra bakarrik. Baiña bera uste dot goitik etorri jakula, beetarrak bialdu barik.

Zorionez, emen egoan Roman, Arratzuko txistularia; ta naita goitik berotu, dantzan egin eben batzuk meza ostean.

Gero, «La Unión» orkestea be emen izan dogu.

Astillas'ek ederto abestu eban. «La, La, La» be, Massielek berak baiño obeto. Baiña, tamalez, ez neutsan euskal abestirik entzun. Lertxundi, Ormaetxea, Amilibia ta abarrek kantetan dituen euskal abesti batzuk, pozik entzungo genduzan guk Nabarniztarrok; baiña, ulertu ezarren be, erdal izkuntzaz asetu bear belarriak.

Iraillaren\* 15'ean, omenaldi\* bat egin deuse probalari zaarrai: Teodoro Artiatx, Jose Benito Urtubi (Rubio) ta Martin Ondarzari.

Teodoro Artiatxen beiakaz, meza ostean, proban egin eben iru zaarrok, baita 24 untze egin be. Orretarako, jakin egin bear da lanean.

Gero, euron omenez\*, Gernikako «Elai Alai»ko gazteak dantzan egin eben. Zorionak, zaar eta gazteok!

### ERROTZAK

Iraillaren\* 13'ean, bere bizitzako 80 garren urtean agur egin deusku Andresa Gerrikagoitiak. Goian bego!

Bere senar, seme alaba ta familiako guztiak artu beie nire agur samiña.

Egun bi geroago, joan egin jaku baita erriko zaarrena be: Hilaria Urberoaga, 92 urtegaz. Goian bego!

Nere dotumiñak bere seme-alabai.

Ez daiguzan aaztu emen munduan ain zintzo jakatu dlaben emakumeok. Euren alde otziz bat eskatzen deusuet.

LORETXU

### AGURRA

Iraillaren leenengoan izan eben euren agur egitea, Arenillas deritxon misiñora joan diran iru misiolariak: monja mertzedetar bi eta Abeletxe baserriko neskatilla gazte bat.

Misiño ori, guztiok dakigunez, Bilbaoko diosesiaren ardurapean dago.

### ERDOTZAKO JAIK

Bezperatik entzun ziran bolandera ta kanpai zaratak ugari. Goizean goiz, Andra Mariaren jaiotza egunari asiera emoteko, txistulariak soñu gozoakaz ibiltaldia egin eben inguru aretan. Meza abestua amaketan; polito bete zan eleizea. Meza ondoren tanboril-txistu soñuagaz gazte taldea batu zan, eta auresku ta dantzakaz gogoz jolastu ziran danak. Gero, guztieri eskerona agertzeko, mama gozoa ta janaria ugari eskiñi eben toki aretako zuzendariak. Txaloak guztieri; eta aurrerantzean be, jarrai orrela.

### SANTA EUFEMIA

Euri eguna benetan, mendirako ezegokia. Baiña alandabe, banaka banaka igon eban jenteak eta eguerdirako mordotxua batu zan. Errian bolandera baten zaratarik ez zan izan egun guztian. Egia esateko, tresna orreik alajtasuna emoten deusoe erriari. Ea ba datorren urtean ez dan jazoten beste orrenbeste.

Arratsalde ta gauean, pelota jokoak iarri ebezan. Gauez batezbe, pelotazale ugari batu zan erri aldean.

### BAKEZALE

## ARRATIA

Ona emen Arratiko iru erri: Arantzazu, Igorre, Dima. Bertoko gazteak gaurko eran bizi gura dabe, alkartuta, bat eginda; poz eta atsekabeetan alkarrerri lagunduten deusoe, bizitza barriak sortzen dauan egarria asetu nairik.

Lenengo erri biak, ez buruauste barik, bakotxa bere batzokitxuagaz jabetu zirean; eta ze maitekor batzartuta ikusi izan dodaz, batez bere Arantzazuko «Arantzak», zapatu arratsalde ta jai aurreko illunabarretan. urrengo egunerako mendi ibillera edo beste edozelako jolasen\* gertakizunak\* egiten, bular bategaz aziak balira lez. Zatoz, irakurle, edozein zapatu arratsaldez Arantzazura, ordu bat naiz bi pozik igaroko dozuz eta; batez bere Puri Ipiñaren miin zolia arteko danean.

Dimatarrak, emendik jo naiz goitik edo beetik, ezin lortu dabe eperdi bete leku, auzotarren antzera batzartuteko. Oztopo ta cragozpena besterik ez dabe. Eta aretarako edo orretarako asmorik izan dabenean, laster etorri jake txistadea\*, kontuz ibilteko. Abade errikoi eta gaztezaleagaz adiskidetasun beroan biziteagaz be, naikoa buruko min sortu izan jako bati baiño geiagori. Au dok plagea, mutillak!

Gaur, lurrean direan erri zapalduak, indar pitin bat dabenak, danak dabiltza, buztarri\* edeak\* apurtu gurarik. Dimako gazteak ostera, indar obeto egiteko, buztartuta ikusi gura dabez euren biotz eta gogoak; baiña dana alperrik: askatasunik ez, eta eskatuten daben buztarria gitxiago. Gaurko gizon elduak, euren era bakarrean eta setati\* erria zuzentzen dabenak, eleizondoko «ormarte baketsura» joaten direanean, nor izan leiteke orduan erri zuzentzaille, eskubidea zer dan ez dakiela gizon duten direanen artean? Erri atzeratuen etorkizun illuna besterik ez da ikusten.

#### A. LANDAJUELA

## ERMUA

### MARGARITA PEDRATXA IL JAKU

Margarita Ormaetxea (Margarita Pedratxa) il da. Ermuko euskaltzaleak oso samindurik gagoz; ain zuzena, ain apala ta langillea zan, guztiok maite genduan. Gazterik alargunduta eta ondorengorik bage, maitasun bi ebazan: eleizea ta euskerea. Noiznai eleizara joan ezkeru, an egoan bera zeredozertxo gertetan\*. Esan geinke, egunagaz batera bear onak egiten asten zala, ze berak eukan arazoa, goizean goiz Aramaitakoa\* joteko; eta azkenengo ordurarte, utsik egin barik bete eban ardurari. Euskal zaletasunean ostera\*, erri guztiak daki zenbat sufridu eban. Euskaldunik bazan, a bai beintzat. Orregaitik, euskaltzale guztieri eskatzen deutsegu, arren, otoitz bat bere arimearen alde.

### BARRI ON BAT

Uste dogu, urria bukatu ordurako, gure

erriz erri

erriko umeak euren ikastolea prest eukiko dabela. Orretara aleginduten gara. Ea egia ete dan barri eder au.

### ARANBERRIA

## ZEANURI

### ERRIKO JAIK

Erri geinetako jaiak, udaldian izaten dira. Zeanurin be, gure erriko jai nagusiak izan doguz: Andra Mariak.

Jaietan batez be, erritik kanpora bizi djrean erritar asko etorten dira euren jaioterrira. Emen ikusi doguz guk be zeanuritar asko. Erritik kanpora bizi arren, euskal aldizkarien bitartez bertoko barriak jakiten dabezala esan deuskue; eta barri geiago jakin gura leukecla-ta, aurreantzean be idazteko eskatu deuskue.

Zeanurik, beti euki dau abade erriaren izena; eta ortik zear dabizan eleizgizon asko agurtzeko ere izan dogu jaietan: abadeen artean, Victor eta Fermin Etxebarriatarrak, Fidel Sagarna ta Ander Manterola; frailleren artean, Zuluaga anaiak, Ozerinjauregi, Añibarro, Astondoa, Egiluz, Gorostizagoiza, eta abar.

Erri gizonen artean, Basilio Pujana, Bilbao aldean EGOSI izeneko lapikoak egiten dituana. Arratiko bertsolariarik ospetsuena dogu berau. Orain dala urte batzuk, Bilbaoko Erri Irratitik entzuten genduzan bere bertsoak; baiña «Euskal Ordua» kendu ebenetik, ez daukagu orretarako be erarik.

Eta, ze jaialdi izan dogun? Betikoak gitxi gorabeera: pelota joko batzuk, euskal dantzak, bertsolariak. Bertsolariak direala ta eztireala, zeredozertxu esan gura geunke. Zeanuriko agintariak eratu dabez jaiak, eta bertsolariak be ekarri dabez. Ondo ikusten dogu. Baiña egun batzuk leenago, Zeanuriko auzune bateko jaiak be ba zirean: San Lorentzoak. Auzune onetako gazteak jaialdi txiki batzuk eratu gura

ebezan, eta bertsolariak be berbatuta eukizan. Alkateagana joan zirean baimen eske, eta ukatu egin cutsen. Geienean be, bertsolariak etortekotan, idatzita eroateko aurrez, bertsoetan esango ebena. Onen aurrean, zer esan be ez dakigu. Parkatu, alkate jauna, baiña ez dakizu bertsolariak zer direan.

### IBILTALDI EDER BAT?

KILI KILI aldizkariak sari bat jarri eban, euskeraz idazten punturik geien lortuten eben umeentzat. Iru eguneko ibiltaldia zan sari nagusia. Zeanuritik, Mari Carmen Emaldik irabazi eban sari ori. Oso pozik etorri zan, Euskalerriko txokorik politenak ikusi ondoren.

Ze bide ederra Kili Kilirena, euskerea indartzeko! Zorionak eta jarrai!

### UDAZKENA

Udagoienean jente askok igoten dau Gorbearantza. Batzuk mantzanillea batzen, perretxikotan beste batzuk; eta azkenez beste askok, mendirako garairik\* onena udagoiena dalako.

Perretxikotan doazanak ez leukece Gorbearantz igon bear, German Axpegaz egon barik. Berak emongo deutse barri ondo be ondo perretxiko zaleai, nondik nora ibilli bear daben asko batzeko.

### EZKONTZAK

Ipiñaburuko Juanita Gortazar, neska jatorra, Billaroko Jabier Etxebarriagaz.

Iturbetar Mari Carmen eta Mari Begoña aitzak, Zeanuriko Jose Mari Izagirregaz eta Ondarrabiko Arcadio Jaime Kanpandegigaz.

### JERIOTZEA

Bere bizitza guztia Zeanurin igaro ondoren il jaku Ramon Manterola, Zeanuriko botikarioa. Atsekabeen lagunduten deutsegu bere alargun eta seme-alabai.

### GORBEATARRA

## FUNCOR S.C.I.

Gaurko baserritarrak bear dituan

MAKINAK

Trituradora — Errota — Naastale — Zerra

Uruga — Uraska

Europako aurrerapenik onenak  
emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ordle

ELORRIO (Tel. 114)

## ANAITASUNA

amabosterokoa

17

Euskalerriko Anaia Txikarrak argitaratua

Zuzendaria: JUAN AZURMENDI AIZPURI

Zuzenbidea: Torre, 3, 1º — Bilbao (5) — Tel. 241467

Urteko ordaina: 75 peseta

Banakoa: 4 peseta

XVI urtea — 170 gn. zenb. — 1968, urtillak 15

D. L.: BI 1753 — 1967

GRAFICAS BILBAO — Gordóniz, 28, 3.º — BILBAO-12

# Eleizearen indarra ta influentzia

Azkenengo artikuluan ikusi genduan, Frantziako Eleizeak sekula euki ez dauan itzala eta errespetua eukala gaur, bai Errian eta bai Erri orren agintarien aurrean.

Eta gaur bururatzen jakun itauna auxe da: Ondo dago kanpoko jazoerak jakitea; baiña ez al dago obeto etxekoakaz jabetzea?

«Nosce te ipsum», esaten eban aspaldiko gizon jakintsu filosofuak: «Ezagutu zeure burua».

Orretan saiatuko\* gara gaur. Gaiñera, etxean ikusten ditugun jazoeren ondoren, bearrezkoa dogu ezagutza ori.

Iñon eta iñoiz Eleiza batek «indarra ta influentzia» euki badau, Espaiñiako Errian izan da. Monarkia, betidanik\*, urteetan eta urteetan Estatu katoliku bat izan da.

Estadu orretan, Eleizeak ez eban iñongo eragozpenik ezagutzen bere lanetarako. Laguntza eta askatasun osoa eukan, edonon eta zelangura komeni jakon zabalkundea egiteko, Jaungoikoaren dotriñea irakasteko.

Bestalde, Eleizearen arerioak iñongo esku-biderik ez euken, erlejiño katolikuaren aurka ezer egiteko.

Bide zabal aundia eukan Eleizeak, mundu guztia, zaar eta gazte, gizon eta emakume bereganatzeko.

Ez da beraz\* arritzeko, garai\* atako itzaldi eta egunkarietan\* esatea, munduan ez egoala Espaiña baiño Erri katolikuagorik. «Aranzazu» aldizkarian irakurten genduan: «...nuestra España católica... hijos predilectos de la Iglesia... nuestro catolicismo tradicional...», eta abar.

Egia etc zan itxurazko edertasun ori? Ikus daiguzan jazoerak.

## LANGILLEAK ETA ELEIZEA

Zelakoak izan zirean «indarra ta influentzia» orren ondorenak langilleen artean?

Erantzuna Gil Robles, Espaiñiak ezagutu dauan gizon katolikuenetariko batek emongo deusku, aurtan bertan argitaratu dauan «No fue posible la paz» izeneko liburuan.

Irakurri, siñismendun gizon orrek idatzi dauana (IV gn. kap., 63 gn. orriald.):

«Al advenimiento de la República la población proletaria de los grandes núcleos industriales y de las ciudades populosas vivía totalmente apartada de la Iglesia, y sumida en la miseria moral más espantosa, derivada en gran parte de su propia miseria física. Ese cuadro de dolor y de miseria se ha desarrollado durante años y años, a unos cuantos centenares de metros de los barrios elegantes, donde la vida ofrecía atractivos a los privilegiados de una sociedad que abandonaba a sus hermanos, sin dejar de llamarse cristiana».

Egoera triste ori erakusten deuskuen itz gogor orreen ostean, guk zer esan geinke?

Gil Roblesek autortzen dauana, guzurra dala ezin esan. Gizon siñismendun katoliku zintzoegia da, ez dan gauzarik esateko.

Zelan orduan esplikatu, langilleen Eleizatik urruntze ori?

Zelanik baliatu\* zan Eleizea bere «indarra ta influentzia» aregaz, ondoren penagarri orreek eukiteko?

Tristeia da; baiña berba bat jatorku burura: frakasua!

## ELEIZEA ETA ESKOITARRAK

Gil Roblesen itz gogorrok, uri edo errietako langillekaitik esanak dira.

Eta lur-langilleekin, kanpo laneko langilleekin zer gertatzen\* zan?

Gauza jakiña da, langille orreek ikaragarriko miserian bizi zireala, eta euren ugazabak, geienak beintzat, eskoitar katolikuak zireala.

Gobernua egon zanean, sentitzen eban katolikutasunak eraginda eta Eleizearen dotriñeari jarraituz, zerbait egin gura izan eban Gil Roblesek.

Berak diñosku (III gn. kap., 54 gn. orriald.): «Ciertamente es que la Iglesia en España estaba necesitada de una hondísima reforma que le acercara a las legítimas corrientes dominantes en el mundo moderno, que al mismo tiempo le aproximara a las puras fuentes del cristianismo, poniéndola en estrecho contacto con las masas desheredadas y convirtiéndola en motor espiritual del cambio indispensable de unas estructuras económicas y sociales, intrínsecamente injustas».

Eta lur-langillekaitik bereziki\* esaten dau (IX gn. kap., 173 gn. orriald.): «Hay que hacer una ley para proporcionar el acceso de los colonos a la propiedad, comprando el Estado las tierras por su justo valor, para dárselas a los colonos, quienes las pagarían en cuarenta años, constituyendo así un patrimonio familiar que no se puede embargar ni transmitir».

«Pero esto que parece tan razonable, tan cristiano, tan social y tan justo, y que hemos venido propugnando día por día en nuestras propagandas, será, sin duda, mal considerado por muchos hombres que se llaman de derecha y que son más revolucionarios que nosotros».

«A esos yo les diría: ¿Qué pretendéis? ¿Que no demos un aliento de justicia social a esas masas desheredadas del campo y de la ciudad, en las cuales prendió una propaganda subversiva que sólo lleva el germen de la destrucción? ¿Es que queréis precipitaros de nuevo en la vorágine revolucionaria? ¡O justicia inspirada en Cristo o revolución inspirada en el odio! (Granadako Armilla uriko mitiñean, 1935-eko martiaren 14-an).

Ori esan eban Gil Roblesek 1935-eant. Eta aurtan, 1968-an, Lercaro kardinalak Ameriketako buruzagieri buruz esan dau: «La re-

volución sangrienta será inevitable, si las condiciones sociales no se modifican».

Urteen buruan, 33 urte ondoren, beste berba batzukaz, Gil Roblesen gogaketa berberak errepikatu\* ditu kardinalak.

## ESKOITARREN ERANTZUNA

Ona emen, Gil Roblesen liburu beretik artuta (IX gn. kap., 179 gn. orriald.), Lamié de Clairac, diputadu tradizionalista katolikuak emon eban erantzuna:

«Como el Ministro de Agricultura siga citando encíclicas de Papas para defender sus proyectos, yo le aseguro a usted que terminaremos haciéndonos cismáticos griegos».

Erdi broman esandako Lamié de Clairac-en erantzun orrek, garbiro adierazoten deusku, eskoitarren berekoitasun edo egoismua, Eleizearen dotriñeagaz buztartu ezin eiteken berekoitasuna zala.

Orrelakoak zirean, katoliku izenagaz agertzen zirean eskumatarrak!

Ezkertarrak eta langilleak, Eleizeagandik urrunduta egozan.

Eskumatarrak, ez eben Eleizearen dotriñea beteten.

Non dagoz orduan, Eleizeak izan zituan «indarra ta influentzia» aren ondorenak?

Eta ondoren onik ez bada ikusten, non dago falloa? Ez dotriñan. Dotriñea, garbi ta zuzena da. Non orduan?

## ETORKIZUNARI BEGIRA, OARPEN GOGOR BAT

Arazo onetan be, Gil Roblesek berak emongo deusku erantzuna (III gn. kap., 54 gn. orriald.):

«Con la guerra civil el catolicismo español se hizo plenamente militante, y en el período subsiguiente se ha producido una auténtica inflación religiosa».

«Si la sinceridad de las nuevas generaciones y la vitalidad del magisterio conciliar no logran rectificar la dirección de esa corriente, el catolicismo español conocerá en el futuro días muy amargos. ¡Quiera Dios que, si el triste pronóstico se confirma, sean días de dolor purificador y vivificante!» (1968-ko martiaren 14-an).

## EUSKAL ERRIA

Ez litzake egoki izango, amaitu orduko, gauza bat esan barik ixtea: Euskal Erriak zintzo gorde ditu, urteen buruan eta oraindiño, bere siñismena eta Kristoren dotriñea.

Ez dogu uste, beraz\*, Euskal Erriak ikusiko dituanik Gil Roblesek pronostikatzen dituan egun garratzak.

Ez dogu uste.

HARIZPE

# ABRAKO LEENENGO SARIKETEĀ

Iraillaren 24an, gaueko 8retan, Ondarreta (Las Arenas)jeko Gran Cineman egin zan sariketa au.

Gaua zan, eldu nintzanean. Kaleetan, musika bandak soñua joten, jaiak ziran eta. Aurreko egunetan euria eginda gero, arratsaldea polito geratu zan, eta jentek kalera urten eban.

Gran Cinemaren inguruetan, ez egoan automobilla ixteko lekurik. Au izan zan leenengo nekea; ta bigarrena ta andiagoa, automobilla itxita, zelan eldu atera. Ingu ruak jentez beterik egozan, teatrorra sartu guraz; baiña txartelak aurreko egunetan saldu ziran guztiak. Deustuko adiskide batzuk esan eusten ordu bi egozala an, ea ezagunen bat agertzen ete zan, barrura sartzen itxiko eutsena.

«Zelan itxiko doguz ba kanpokoak sartzen, bertokoentzat be lekurik ez bada go?», erantzuten eben organizatzaileak.

Asi zan jaialdia. Ni, bazter baten zutunik. Jezarterik pentsatu be ez. Nire inguruan, beste asko zutunik, eta pasilluetan bearen gaiñean jezarrita mutil asko. Ainbeste jenteren artean, bero aundia ta guztiok izerditan.

Jaialdi onen leenengo zatian, sariketan parte artzen eben bost abeslari ta bikoteak jardun eben. Erdiunean, entzuleak emondako botoen batzea. Bigarren zatian eta botoak kontetan ziran bitartean, beste abeslari ta taldeen ekiñaldia.

**Abraکو Leenengo Saria**, Irune ta Andoni Argoitiarentzat izan zan. Euneko 50 boto lortu zituen eurak; eta beste botoak, beste taldeen artean banandu ziran.

Argoitiarrak, sari onegaz, indartu egin dabe euren oraiñarteko izen aundia. Maitagarriak egiten dira Irune ta Andoni. Abesti ondo aukeratuak, ondo esanak, graziaz abestuak, kitarraz ederto lagunduak, irribarre ezpanetatik darioela\*. Au guztia ikusi ta jasoten dau jentek eurakandik.



Argoitia neba-arrebak

Auxe da Argoitiarren exituaren sekretua, bai Ondarretan eta bai abestuten daben edozein lekutan.

Eta aurrera joan baiño leen, zabaldu daigun barri au: ANAITASUNAREN ale\* au zuen eskuetara eldu orduko, Irune ta Andoniren bigarren diskoa kalean egongo da, lau kanta oneikaz:

**Maite, Maite;**

**Bakartadea** («Una tontería», Frank eta Nancy Sinatrarena):

**Mundu Bat** (Pilar Zarragarena);

**Jauna, zergaitik** («Los dos tan felices», Bonner eta Gordonena).

Bigarren zatian, Estitxu, Urretxindorrak, Oskarbi ta abar.

Baiña esan daigun zelakoa zan teatroko giroa\*.

Beti uste izan dot, Ondarreta jente abertsen abiea zala, euskal kutsu\* bako erria. An ez da iñoiz egin, oraiñarte, olako jaialdirik. Au guztia jakinda, poz aundia artu neban, ainbeste jente ikusiaz, eta geiago oraindiño barruko ambienteagaz.

An egozan-guztiak, ez ziran urrean\* Ondarretakoak, baiña bai geienak; eta ori, edonor berotuteko beste zan.

Jentek, txaloka eroaten eban abestien eritmtua, abeslariak olan eskatuten ebe nean; eta beste abesti batzutan, estribilluak kantetan ebazan, eta gustora gaiñera, batez be Argoitiarren leenengo diskoko «Ames, ames» abestu zanean. Olakoxe kantak —erriak parte artzen ebanekoak— izan ziran txalotuenak.

Azkenean, abeslari guztiak igon eben ezenariora, eta Romero jaunaren zuzendaritzapean abestu eben «Agur Jaunak». Jentea, zutunik, ezenariokoakaz batera kantetan.

Euskeraz kantaturiko abestiak mesede aundia egiten deutsoe euskereari, askok uste daben baiño aundiagoa. Gure abeslariak lotu barik dabilta leku batetik bestera, domeka ta astegun askotan. Esan daiela Argoitia neba-arrebak (ia berreun kontzertu), Oskarbikoak (atzo euren eungarren ekiñaldia), Estitxuk, Maite Idirinek, Lertxundik, Mari Lurdesek, Letek.

Gure abeslarien artean, klase bitakoak dagoz. Batzuk, eurak egiten dabez doiñu ta itzak (Bittor Egurrolak, Lertxundik, Letek). Beste batzuk, munduan zear fama artu daben doiñuai euskal itzak ipiñita kantetan ditue abestiak (Argoitiarrak, Betti Alaikoak, Maite Idirinek). Beste batzuk, erdiko bidea artzen dabe (Saenz anaiak). Euskerazko kantak, danak dira interesanteak eta bearrezkoak; eta desbardiañak badira, obeto, entzule guztiak eritxi ta gusto berekoak ez dira izaten eta.

Euskal abeslari barriak, guztiak, gure txalo beroenak merezi dabez, eta aurrera joateko laguntzea.

Gran Cinemako gazteak (euneko larogtamabost, ogei urterik beerakoak ziran) pozarren parte artu eben jaialdian, eta emendik etorriko jake (edo, leendik baueken, indartuko jake) euskereaganako interesa ta maitasuna.

Betoz olako jaialdiak ugari, euskerearen onerako.

XABIER GEREÑO

## Euskerazko mezak Bilbaon

### DOMEKA TA JAIEGUNETAN

Begoñako Karmelon .....	8,—
Sagrada Familian .....	9,—
Deustuko San Felizisimon .....	10,30
Deustuko San Pedron .....	11,—
Begoñazpiko Andra Marian .....	11,—
San Antonen .....	11,30

### ZAPATUETAN ETA JAIEGUN BEZPERETAN

Iralabarriko Frantziskanoetan .....	6,30
Zurbaraneko Sakramentinoetan .....	8,30

EUSKAL ERRIAN

## GURASO BATEN ERITXIA

Katolikutasuna sentitzen dauanak, ba dauko gaur zegaz kezka izan. Protestante sailak Eleizatik alde egin ebanean be, orain aiña\* naaste izan ete zan gero?

Kontzilio aurretik, eleizagintarien agindu ta irakatsien aurka, erresponsable zan iñok ez eban berbarik jasoko. Orain edozein abade, edozein idazle Aita Santua aiña\* ba dala dirudi. Eleizearen irakatsi ta jokabideetan edozer barrikeriren sarrerea eskatzeko aiña\* jakitun eta eskubidedun gara danok. Aita Santuaren beraren aginduen errazoiak ta indarra ankapera jaurtigiteko bape bildurrik ez daukagu.

Diñogun au, besteak beste, «Humanæ Vitæ» eskutitza dala-ta ikusi dogu.

Aita Santuaren eskutitz onen aurka, katoliku askok jaso dabe berbea.

Eleizearen kondairan, gaur ontzat emon ezin leitekezan agindu ta jokabideak aurkitu geinkez.

Baiña orain Eleizeak alegiñik naikoa egiten dau, ondo ez dagoana zuzentzen. Gure egunerako Aita Santuak, Eleizan egin bear diran aldaketak egiteko, iñok bultzatu bearrik ez dauke.

Baiña Eleizeak, Kristoren Eleiza izaten jarraitu bear badau, oiñarrizko irakatsietan zer aldaturik ez dauko.

Azkenengo bi-iru urteetan, jaiotzen neur-tzea dala-ta, eztabaidea naikoa izan da katolikuon artean. Ta zorioneko (zoritarreko esango neuke nik) pildorea dala-ta, Aita Santua berba egitera beartua izan da.

Emon dauan erabagia, ez dau itsumustuan\* artu; ez orixe. Urteetan egon da jakitunen eritxiak aztertzen.

Ze erabagi emon dauan ba dakigu: gaxena.

Bere errazoiaren errazoi andia ortxe narbarmentzen\* da, nire ustez.

Danok, erreztasunera daukagu griña\*; eta jentearen erreztasun zaletasunari amor\* emonagaz, Aita Santuak pildorea ontzat emon baleu, makiña bat txalotuago izango zan, izan dan baiño. Ori, ba ekian Aita Santuak. Baiña jokabide ori artzea Jaungoikoaren aginduen kontra dagoala uste izan daualako, jente askoren aurrean txarto lagako eban erabagia artu dau.

Zegaitik ba orren\* asarre, eleizgizon ta eleizgizon ez diran ainbat jente, «Humanæ Vitæ» eskutitza dala-ta?

Orren\* burubako jokatu ete dau ba Aita Santuak, erabagi ori artzean?

Pildorea erabiltea ondo ikusten dabenak, ainbat errazoi atara dabez; baiña bat ez besteak, sasi errazoiak baiño ez dira.

Mundua, doan lez joanda, bertako bizilagunentzat txiki egingo dala; auxe bakarrik, aintzat artzeko errazoiak.

Baiña oraindiño ez gagoz estura orretan. Mundua bear dan lez antolatuta\*, makiña bat geiago bertan bizi geintekoz. Iskillotan\* eralgiten\* diran dirutzak errien onerako ipiñiko balira, gaur gosez bizi diran askok ogia oparo\* jango leukee.

Ta gerokoa, geroak aginduko dau.

Beste errazoi guztiak, nasaikeria baiño ez dira. Gure gurasoak, guk baiño aukera gixtiagogaz, familia ederrak azi ebezan.

Irabazi urriakaz familia larri-larri aztea zer dan, iñok esan bearrik ez daukat. Ta aingeru papera egitera ez nator. Baiña, geure erostasunagaitik\*, pekatua pekatu ez dala edo ez litzakela izan bear esan edo eskatzea, deabrukeria iruditzen jat.

Gaiñera, familia bakantzeko\* bideak ba dira, pildora ta bidebakokeri barik.

Ala, bide orrei be gitxi crixten al deutsegu?

Katolikuok (eta kristiñau guztiak be bai) jainkobakoen eta jentillengandik zerbait ez ete gara berezi\* bear ezkonduen arteko artuemonetan?

Erlejiñoko aginduen esanetara sakrifizio txikiñik be egiteko ez bagagoz, polita gure erlejiñoa!

Senar-emazte askok, eleizgizonen baimen-

nagaz, pildorea erabili ei dabe. Ori da danak be, arinkeriz jokatzear!

Aita Santua erabagirik ezin artuta ainbat denporan egoala ikustea, auzia eurak uste eben baizen argi ez egotearen ezaugarria ez ete zan ba? Zegaitik ez egon, Eleizako buruaren erabagiaren zain\*?

Gai\* oneri leenago be ekinda nago, eta ez noa sasi errazoiak aztertzen astera. Orraitio\*, azkenengo atara dabenari ikututxu bat egin-go deutsagu.

Ezkonduen leenengo ardurea ez ei da ondorengoak munduratzea, alkar maitatzea baiño.

Ezer esan nai ez daben olako berbak asmatuaz, dana erabagiten dabela uste dabe gaur. Arrautzea ala oilloa leenagokoa zein dan eztabaidan ibiltea baizen alperrikakoa da esakera ori. Bai, alkarrenganako maitasunak, ezkontzara eroaten ditu neska-mutillak. Baiña ezkontzea, berez, ondorengoak ekarteko bidea da.

Ta seme-alabak senar-emazteen maitasunik ez dabe otzitzen, ezta asko izanda be; geitu bai.


Zenbat senar-emazte konpondu ezinda, umerik ezagaitik!

Ta zenbat familiatan seme-alabak dira gurasoak alkartzen dituan kate bakarra!

Gai\* onek zer esana ugari dauko; baiña luzeegi joan barik, amaia emon bearko deutsagu.

Gure azkenengo berbak, biotz-biotzez esandako oneik izan beitez: *Gora Seigarren Paulo Aita Santua!*

KAMIÑAZPI



«...parkatu, laziana, baiña entziklikearen ostean, oraiñarte lez, aurre ra joan bearko dogu»

## INGLATERRAN

### EKATX GOGORRA ELEIZA BARRUAN

Inglaterrean, «Humanæ Vitæ» entziklikeak ikaragarritzko eztabaidea sortu eragin dau

erritarren artean. Prentsa neutralak eta katolikuen aldizkari geienak parte artu dabe

# ENTZIKLIKEAREN OSTEAN

burruka onetan. Eleizgizonen eta laikuen artean sortu dan artegatasuna\*, egunean baiño egunean aundiagoa da.

Asoziaziño eta persona askok, ondo artu dabe Paulo VI garrenaren erabagia.

Baiña beste katoliku asko, eleizgizon eta laiku, ez dagoz konforme Aita Santuak bere entziklikan irakasten dauanagaz. Ori dala ta, protesta gogorak jaso ditue. Eta naziñoکو periodiku ta aldizkari aundiak eten\* barik azaltzen dabez, entziklika onek ekumenismuari eta irugarren munduari ekarriko deusezan kalteak.



Aita Weir



Cowderoy obispoa

Obispo batzuk, bigundu eta baretu gura dabez eleizgizonen arteko burruka biziok.

Beste obispo batzuk oster\*, kastigu gogorak emon deutseez, euren diskonformidatea jentearen aurrean agertu daben abadeeri. Obispo oneek, euren jokabide gogorragaz, geitu egin dabe abadeen deskonfiantzea eta eleizgintarien kontra bultzatu ditue.

Monseiñor Cowderoy, Southwark-eko artzobispoak artu ditu neurririk geien eta gogorrenak bere abade batzuen kontra. Guztiz tamalgarria\* dala esan dau, bere abade ta eleiztar protestazailleen zentzunbakotasuna.

Paul Weir abadeari, bere abadetzako eskubide ta zeregin guztiak kendu deutsoz. Bardin egin deutso Aita Brocard Sewel, Aylesford-eko Karmeldarren nagusiari. Beste asko be ixildu erazo ditu, edo parrokietatik aldatu.

Agostuaren 23an, zera agertu zan «Catholic Herald» astekari\* famaduak: «Aita Santuaren entziklika kontzientzia osoan onartu ezin daben abadeen taldea, egunean egunean ugaritzen doa». Orain asko ez dala, irurogei bat abadek izenpetu dabe, laikuak entziklikearen kontra idatzitako karta agiri bat.

Aita Harris eta Hinde teologu famaduak esan dabe, obispoen jokabide gogor onek ez

deutsola Eleizeari bakerik ekarriko, mingostasuna ta dibisiñoa baiño.

Dana dala, asko ta asko dira, prentsan, batzarretan, idazkietan, Aita Santuaren dotriñeagaz konforme ez dagozala adierazo daben laikuak; eta obispoen kontra, euron jokabide gogorragaitik, protestatu dabenak.

## ALEMANIAN

### MUKERTASUN IKARAGARRIA

Agostuaren azkenetan, batzar bat egin dabe Alemania Federaleko obispoak, «Humanae Vitae» entziklika estudiatzeko, eta katolikueri zuzenbide batzuk emoteko. Ona emen, berba gixitan, zuzenbideok:

*Katolikuak arduva aundiagaz estudiatu bear dabe entziklikeak irakasten dauana, eta euren kontzientzian prest egon, Aita Santuak diñoana onartzeko.*

*Eleizgizonak aparteko obligaziñoa dauke, Aita Santuaren entziklika zintzotasun guztiagaz azaltzeko.*

*Abadeak, konfesiñoak entzuten dituenan, errespetatu egin bear dabe, senar-emazteak seriooki\* eta euren kontzientziaren arabera\* artu daben erabagia.*

Obispoak prisa aundia euki dabe, zuzenbide orreek zabaltzeko. Euren batzarra be, illabete leenago egin dabe, ainbat ariñen katolikuen kontzientziak argitzeko eta jentearen artegatasuna\* sosegatzeko. Izan be, azken illabeteotan, egunean baiño egunean aundiagoa egin da entziklikearen kontrako eritxien korronta\*, benetako uiola\* biurtu arte. Diosesi bereko eundakada abadeak, katoliku alkarreak, mediku taldeak, alde guztietako millakada laikuak, ago batez errefusetan\* dabe entziklika.

Euretariko geienak, dei egiten deutse obispoeri laguntasun billa. Esate baterako, beste gauza askoren artean, auxe diñotsoe euren obispoari Paderborn-eko diosesiko katolikuak, 4.265 lagunek (271 abadek) izenpetutako karta baten: «Geure indar guztiakaz eskatzen deutsegu obispoeri, geuri laguntzera etorri daitezala eta euren berba zintzo eta kementsuakaz argitu gaiezala; bestela, iñok ez dakizan zoritxarreko ondorenak etorri leitez ez eta».

Leen aitatu dogun obispoen deklaraziñoa ikusita, katoliku askok itaun auxe egiten dabe euren barruan: Ze balio dauke orduan Aita Santuaren kondenaziñoak, jaiotzak neurtzeko bideak gurasoen erresponsabilitadapean ixten badira?

Beste aldetik, obispoak ez dabe esan, noraiño eltzen dan auzi onetan Aita Santuaren aginpidea.

Katoliku askoren ustez, Aita Santua ezin leiteke seksualidadearen arlo pribaduan sartu. Orregaitik, gero ta geiago dira, Heinrich Böll, katoliku idazle ospetsuaren itzok onartzen dituenak: «Entziklika au ez da aintzat artuko. Eta gaur egunean, eskomuniño auto-

Eleiztarren artean, alderdi bietan dagoz fanatikuak, entziklikearen «alde» naiz «kontra» agertzen direanak. Adibidez\*, Londren Westminster-eko katedraletik urtekeran, aldarrika\* ibilli dira, alkarrerri «traidore», «hipokrita» ta olakoak esaten.

*matikuaren* amenazu barragarriak iñori bildurrik emoten ez deutsan ezkerro, desobedientziak leunduko dau askatasunaren bidea».

Diosesietako astekarietan\* izan ezik, beste aldizkari guztietan eta radioan, katolikuen eritxiak entziklikearen kontrakoak dira.

Entzun zer diñoan «Frankfurter Allgemeine Zeitung» egunkarian\*, beste 29 abadegaz entziklikearen kontra jarri dan Frankfurteko apaiz batek: «Kontzilioak aintzat artu eban Jaungoikoaren Erriko semeen askatasuna, eta orain Aita Santuak libertade orreri izugarriko golpe bat emon deutso».

«Kölnische Rundschau» aldizkarian, Karl Breuning jesuiteak, alkarren parcan ipinten ditu gaur eguneko kristiñau zentzundunak. Erromaren eskupe gogorretik urten gura dabenak, eta demokrazia erritarrak, Moskuren menpetik iges egin nai dabenak.



Doepfner kardinala, Munich-eko artzobispoa

Walter Dirks idazleak eta beste askok uste dabe, entziklika onek goiz edo berandu krisi ikaragarri bat sortu erazo leikela, ez Aita Santuaren aginpideari buruz bakarrik, baita fedeari buruz bere.

Egindako inkesta\* batek erakusten dauenez, katolikuak arlo onetan ez dabe euren oraiñarteko jokabidea aldatuko, entziklikaek diñoana diñoala.

# Bizi leitekez Euskal Errian euskaldun guztiak?



**Donibane Lohitzuneko portua**

*Arvaintza ta industria naikorik ez dago gure gazteentzat.*

Leengo baten aitatu genduan, euskaldun nekazari\* asko lan billa doazala uri\* urrunetara. Ikusi be egin genduan, ori ez dala Euskal Errikoa bakarrik eta, gaiñera, geuk be ez dogula bear geunken guztia egiten, gure gazteeri Euskal Errian bizibidea aurkitzeko.

Baiña ez dira oker guztiak euskaldunen gaiñera bota bear.

Arrotzak\*, gero ta geiago sartzen dabe suurra gure arazoetan, eta ez beti modurik onnean. Batzuk, ez dira benetan ardurutzen gure bearrizan eta gurariakaz. Batez bere, goiko aukietan dagozanak.

Gure lurretan zear dabilta, gu iñurri abien gaiñerik ibiltzen garean lez; eta ez dira konturutzen, euren oinkadakaz zapaldu egiten gaituela. Ondorenak, geuk sufridu ta sentitzen doguz gero.

## EZIN DANAK LABRANTZATIK BIZI

Danak ezin leikee lugintzan\* jardun. Seme bat, naikoa da base-rrirako. Alandabe, asko dira, etxaguntzea ixten dabenak: lur eskasagaitik, aurrerabide urriakaitik, eta abar.

Baiña uri\* aundietara joatea, beste gauza bat da. Labrantzatik urtetan dabeneztat, zegaitik ez dago industriarik gure Errian? Zegaitik ez da lanteri barririk sortzen gure artean?

Bein baiño geiagotan esan dogu, zelako kaltea ekarten deuten errialdeeri —eta batez bere gureari— Frantziako sistema erdikoiak\*: podere guztiak Parisen, ondasun eta langille guztiak Parisera.

Ori ez dago zuzen, orrek ez dakar gauza onik iñorentzat.

Joan XXIII garrenak argi ta garbi esan eban, lantegiak langilleakana ekarri bear direala, eta ez eroan gizonak urruneko uri\* aundietarantz.

## EUSKAL ERRIKO ONDASUNAK, TXARTO BANANDUTA

Geiago dana: gure gazteak Parisera lan billa doazan bitartean, Euskal Erriak ba ditu lantegi ederrak eurrezean\*... Bidasoaren beste aldean. Beraz\*, euskaldunak ez leukee erbesteratzeko arrazoirik euki-ko, Euskal Erri osoko ondasunak ondo zuzenduta eta bananduta balegoz.

Alkar buztartuta\* egon bear litzakez ego aldeko industria eta ipar aldeko labrantzea.

Ange lantegi batzuk, etorri egin bear leukee onantz; eta emengo lurraren emoitzak\*, geiago eroan bear geunkez arantz.

Zorixarrez, ez da ori gure gaurko egoera. Baiña noren erruz?

Guk euskaldunok, ez dogu Euskal Erria zati bitan moztu.

Arrotzak\*, oker asko egin dabe —eta oraindiño egiten diardue\*— gure Errian. Eta ez deutsoe kalte txikia gure bizibideari egiten.

## IRAKASPEN BALIOTSU BAT

Ez daigun aaztu, erri txikien alde Joan XXIII garrenak itxi euskun irakaspena:

«Argi ta garbi esan bear dogu, minorien bizia ta aurrerakuntzea tratatzen dituan edozein politika muetak\*, injustizia aundi bat egiten dauala; eta oker ori oraindiño aundiagoa dala, traba orreek minorien eriotzea elburutzar\* badauke.

«Izan be, zuzentasunak bete betearen eskatzen dau, gobernua minorien alde lan egin daiela, eurori laguntzeko, batez bere izkuntza, kultura, oitura ta ekonomia kontuan» (*Pacem in terris*, 95-96).

## GUREA GEURETZAT, ETA DANOK BAT

Jaungoikoak, emon deusku Euskal Errian biziteko bear dogun guztia. Geuk ez dogu ondo zuzentzen Euskal Erria. Geure erruz. Baiña baita arrotzen\* erruz bere. Jakin daigun «*mea culpa*» bat egiten, gerorako obeto gertuta egoteko. Jakin daigun, baita arrotzak euren lekuan ipinten be: ez nagusiaren aukian, ez pobreen errenkadan —eurak egiten gaituen lez— lagunaren artean baiño. Gure etxean nagusi izateak ez dau gizonen batasuna urratzen, sendotzen baiño. Gure umeen amorearren, ez gaitez an totoegiak izan!

J. L. DAVANT

(Baionako HERRIA aldizkaritik bizkaieraztua)



**HEMPEL'ek**

eskintzen deusku, eskura ipiñiaz, itxasontzientzat margorik onena

HEMPEL izena

Ludi osoan ezaguna.

BILBO-ko ordezkaria: JOSE LUIS ALDEKOA

Gregorio Balparada, 2, 7.º centro — Tel. 322704

BILBAO-12

Equimar — Ercilla, 1 - Tel. 243954 — BILBAO-9

Etxe Nagusia Barzelonan:

Entenza, 85-87 - BARCELONA-15

Tel. 223 24 27 — 223 39 23 — 223 4687

Telegramak: HEMPATURI



# Kaleko gizonak diñoana

## ISABEL II BOTA EBENEAN

Eun urte bete dira, Espainiako erregiña zabal ori bere tronu ederretik bota ebenetik. Amaitubarri dan iraillean\*, egin-egiñean\* be.

Orduan be, zalapartea ta erreboluziño usaiña ba ebillen beekoen artean. Baiña baita goikoen artean be.

Oargarri\* da, orduan ezpatadunak erabilli eben jokabidea.

Mailla garaiko\* militarrek ez eben alkar ondo artzen, eta ortik sortu eben sekulako matxiñadea.

Topete asaldatu\* zan Cadiz aldean, menpean zituan itxasontzi gerrakoakaz, eta gobernukoak estu ta larri jarri zituan praketan.

Itxasgudari nagusi ori gora-goraka asi bai-zen laster, erbestera bialdurik egozan-Serrano ta Prim generalak, euren aberirantza biurtu zirean.

Burruka batzuk egin zituen; eta Pavia izarduna menperatu eben-burrukaldi ostean, Isabel II, Espainietako erregiñak, anka egin bear izan eban, ain zuzen orduan Euskalere-riko lurretik Frantzi alderaiño.

Oraintsuago be, ikusi izan ditugu errege batzuk euren aberrietatik jaurtiten. Berbarako\*, Egiptokoa eta, oraintsuago, barriz, Greziakoa.

## TURISTEI AGUR

Aurtengo udeaz batera joan dira turistarik geienak inguru oneitatik.

Legerri\* osoan guztitara jota, urtearen leenengo zortzi illabeteetan 14.000.000 turista gitxi gorabeera agertu izan dira.

Joan dan urteaz gain, 6,2 %.

Ala ta bere, kanpotarrok igaz baiño esku zabalagoak ez dira izan. Ba leiteke errua euren ez izatea, euren sakelak aurtten tximurragoak ibilli direalako baiño.

Beste askori bere, orixe berori jazo jake. Eskuarterik\* ugari ez bada, otzago ta geldia- go ibilli bear.

Turistak aurtten eralgi\* dabena, igaz baiño 5 % gitxiago izan da. Lagunak bai ugar-riago, baiña ezkurra\* meatzago\* bere bai.

Urte guztiak ez dira bardiñak, izan bere. Meko-meko\* ibiltekoa, aurtengo au. Zera, gerriko laburragoak bere, balio deuskue orain- goz.

Dana dala, «barruko turistak» bere, aizatu\* egin bear direala aitatu eban norbaitek aur-temein\*.

## LANBAKOAK ETA ETXEBIZITZAK

Europari begira jarri ezker, lanbako- en goerea bere, aitaturgarria da.

Joan direan urte biotan, ekonomi-zabalke- tea\* makalagotu egin izan da, egitamu\* bar-riak, makiñeria ugaritutea ta buru-eraketak\* direala ta.

MEC errietako aginpidedunak, naikoa bu-ruausterik dabe arazo orrezaz.

Beste aldetik, etxebizitzak bere, ez ditue iñun be naikoa egin, ez egiten. Amar-ogeñ urte urrengoetan etxegintzan jardun arren bere, ez da errez izango premiñea asetuterik.

Ondasun bideak meazu\* guraz dabiz ame-rikarrak eta ingelesak. Orraitio\*, Frantzia ta Alemania Sartaldekoa ekonomi-neurriz au-rrera ta gora egin nairik ikusten ditue orre- tan adituak direanak.

Urez andikoen bultzada makalagoari geia- go egingo ete deutse europar erri bi orrein alegiñak? Ekonomi-erizle\* batzuk orixe ager- tu deuskue.

Esanak esan, gaiñeko illabeteetan susmaru al izango dogu europar errion gorakadea egiazkoa dan ala ez.

## KATUJABEAK

—Aiko! Gure katu nabarraren billa nai- bik.

—Etxakiat nik ezer, ire katu orrezaz.

—Aiko! Gure katuaz zer egin dok?

—Egin-egiñean\* bere, etxakiat ik zer di- ñoan.


—Aiko, aiko! Ire jokabide makurraren sa- ria artuko dok.

—...

—Aiko...! Isildu egin al aiz betiko?

Eta «Aiko»ren gorpua\*, jakiña, isildu egin- zan betiko.

KALEKOA



Aurreratuta daukozun dirua gordeteko  
BIZKAIKO AHORRU KAJA  
dozu onena

Etxe nagusia: Pl. España — BILBAO  
Tel. 243600.  
15 sukursal Bilbaon

65 sukursal Bizkaiko erri nagusietan  
Madrilleko Etxea: I. C. C. A., Alcalá, 27  
Tel. 2214995

**BIZKAIKO AHORRU KAJEAK**  
Bilbaon eta Probintzia osoan lanik za- balena egiten dau benefizentzia ta gizarte saillean, eta laguntzarik probetxugarriena emoten dau osasun kontuan.

## ANAITASUNA

Amabosteroko aldizkaria

SUSKRIZIÑO TXANTELA

IZEN ETA APELLIDUA .....

KALEAREN IZENA ETA ETXEAREN NUMERUA .....

BASERRIA .....

AUZOA .....

ERRIA .....

PREZIOA

Urte onen azkenerarte ... .. 30 peseta

Datorren urtearen azkenerarte ... .. 105 peseta

---

IDATZI LETRA ARGIAZ, ETA BIALDU TXANTEL AU  
ZUZENBIDE ONETARA:  
**ANAITASUNA**  
Torre, 3, 1.º — BILBAO - 5

# Vaticanoko Radioak esan dauana

## EGINTZAK BEAR DIRA

Aita Santuari Colombian egin jakon ondoctorriak benetan poztu gaitu. Pozgarria da izan bere, bertako jente txeratsu\* ta lauak\* Aita Santuari ainbeste txalo, gora ta laudorio\* egin deutsola jakitea.

Baiña ori dana, egun batzuetako adorea ta alaitasuna igarota gero, benetako egintzarako eragingarria izan daitela gura geunke.

Berbak, beti dira errezagoak, egintzak baiño. Zeredozer pentsatu eragin deusku, fotografietan ikusi dogunak: ainbeste ertzain\*, ainbeste polizia ta soldadu, arma eta makilla! Zenbat indar, Aita Santua zaintzeko!

Kristiñau Sindikatuak liburuxka bat atara dabe, «Aita Santuak ikusiko ez dauan Colombianaren benetako aurpegia» azaltzen dauana.

Beste liburu bat be agertu da; eta bertan irakurten dogu, Kontzilioko irakatsiak eta Colombiako Eleizan ikusten direanak ez dartzala bat.

Bere aldetik, bertako prentseak diñosku, Erlejiño Libertadeaz Kontzilioak irakasten dauana ez dala osorik betetan Colombian.

Konkordatuaren kontra berba egiten dabena be, ba dagoz. Eta ez dira gaurkoak, kritikatzaille orreek.

Analfabetismua, gitxitu bearrean, euneko ogetamabostetik (35 %) euneko berrogeira (40 %) geitzen ei doa.

Egunero entzuten da Colombian, errenta nazionalaren euneko larogeia (80 %) euneko seiren (6 %) eskuetan dagoala. Auzi au ondo zuzentzeko, jo ta kee alegiñean ikusi gura geunke Kongresu Eukaristikuan agertu dan adore ta zaletasun guztia.

Bestela, Kongresu orren ondorioa\* eskasa ta beinbeñekoa izango litzake.

Autortuten dogu bai, alegiña naikoa egiten dala, Colombian eta beste leku askotan, justizia sozialaren alde.

Baiña or dagoz numeruak: naziño osoan euneko sei lagunek (6 %) dauke euren eskuetan labrantzako aberastasunetarik euneko larogeia (80 %).

Colombiako Osasun Ministerioak agertu dauanez, millakaz ume dagoz abandonaturik Bogotan bertan. Eta ez da Colombia, ezta gitxiagorik be, Latinamerikako naziñoen artean gauzak txartoen daukozana. Eta ez litzake egia izango, orrelako miseriak eta bearrizanak Latinamerikan bakarrik dagozala esatea.

(Agostuaren 23an irakurria)

## BAIÑA, ZE BIOLENTZIA?

Entzun dozue, entzule adiskideak, Aita Santuak biolentzia kondenatu egin dauala. Jakiña, kaleetako erreboluzionarioen, «Che» Guevara ta bere antzeko gerrilleroen, terroristen eta Txekoslovakiaiko zapaltzailleen biolentzia kondenatu dau Aita Santuak.

Baiña, ez ete dago beste biolentziarik munduan? Gogora daigun edozein lekutako Estaduren bat. Estadu orretan, agintzen dabena egiten dabez legeak. Euren eskuetan daukez agintzeko bear direan «legezko» indar guztiak: ejerzitua ta polizia, Prentsea, Radioa ta Telebisiñoa.

Estadu orretan, erritarren batek gobernuak jarritako legeak onartzen ez baditu, beingoan jatorko zigorra. Baiña berak ez dau parterik

## Alemaniko demokrazia erritarra

Berlinera doanak, Marienborn'eko mugearen bildurra daroa: zenbat ordu itxaron bearko ete dogu? Ze, ordaindu bear izan doguzan milla ta ogei pesetagaz, ez dago dana eginda. Marienborneko mugan ez dauke prisarik.

Marienbornen dago gaur Alemania bien arteko mugea: polizgizonak, mitrailletak, papeleo amaitueziña, errusitar komisarioa.

Basoan erdi ezkutaturik dagozan torreta artean doa Hitler'ek egindako autobidea, Marienbornetik Berlineraiño. Orduko 100 kilometrotik beera ibilteko agindua dago. Orainarte, ondo ekarri doguz 140 kilometro orduko.

Alemania komunisteari buruz, ez dago zeresan barririk. Esanda dago esan leiteken guztia. Gaiñera, ikusi daikeguna be ez da asko. Autobidean, gizonakaz batera lanean dabiltzan emakumeak arritu gaitue: emakumeak pikatxoiaz. Penagarri iruditu jaku. Patata soloetan bearrean ikusten doguz emakumeak, ogei inguruko taldeka: danak bardin jantzita.

Gaur olakorik esatea be, lotsagarri da. Baiña gaur be olakoxeak ikusten dira ta, ez dago zetan ixildu.

Eta ezer onik ez? Baita: Magdeburgoko industria izugarria. Gizonak industriarako bear dira, azaldu deuskuenez. Alemania komunistako erri

euki, lege orreek egiterakoan edo ipintekoan. Bere burua defendietako, alkartasun bat eratu gura badau, legetik kanpora dabil lela esango jako. Batzar bat organizetan badau, galerazo egingo deusoe. Karta edo artikulua bat periodikuetara naiz radiora bialtzen badau, ez deusoe kasurik egingo. Bere ideiak zabaltzen asten bada, gobernuaren eta erriaren kontrakoak direala esango deusoe.

Itaun bat orain: erritar au ez ete dago biolentzia baten azpian?

Eta pazientzia galduta, jarritako legeen kontra badao, gaiñera jatorkoz «ordenabide publikuaren indarrak», ta bere libertadea ta integritade personala arriskuan dagoz.

Ez ete gagoz, legezko biurtu dan biolentziako kasu baten aurrean? Naiko argi dago.

(Agostuaren 24an irakurria)

industriatsuenetakoa da Magdeburgo.

Leenago be, Münster'en nengoala, Alemania komunistako jente asko topatu izan dodaz. Iges egindakoak zirean. Baiña ez nintzan, eurak esaten ebenagaz larregi fiatzen.

Alemania komunistan bizi direnatarik gitxi ezagutu dodaz, eta ez dabe politikaz barbarik egiten.

Travemünde'n ikusi neban leenengo aldiz mugea: torretak, sareak, txakurrak, mendi guztian. Ontzi armatuak jagoten eben itxasoko mugea. Urre egoan andik Rostock'eko portua.

Kopenhagen topatu neban bein Rostockeko mariñel talde bat. Polito edaten eben garagardoa\*; baiña Ulbricht'en gobernu ez eben aitatu be egin gura. Espaiñiako «toreroakaitik» itaundu gura eben bakarrik.

Beiñola Bermeoko lagun batzukaz Berlinera joan nintzanean be, ea toeroak giñean itaundu euskun polizgizon gazte batek.

Bermeotarrakaz inpernuraiño joan ei leiteke. Alandabe, Berlin komunistara bein, eta azkeneko aldiz. Berlinen, izanbe, leendik be nonbaiten ezagutu doguzan gauza larregi ikusten dira. Argi esanda: Diktadura. Eta ez deusku ardura koloreak.

JOSE AZURMENDI, Münster

# ABERASTU ZURE EUSKEREA

Ona emen, ANAITASUNA-ren zenbaki onetan izartu bategaz agertzen direan itzen esangurea.

B = Bizkaia, G = Gipuzkoa, L = Laburdi, N = Napparroa, D = danak

ADIBIDE (B), *ejemplo, ilustración.*  
 AGERTUKI (L), *agirian, públicamente.*  
 AINA (BG), *beste, tanto como.*  
 ALDARRI (B), *garrasia, grito.*  
 AIZATU (B), *indartu, eragin, promover.*  
 ALE (D), *garaua, banakoa, ejemplar de publicación.*  
 AMOR EMON (D), *ceder.*  
 ANTOLATU (GLN), *eratu, atondu, organizar.*  
 APAR (BGN), *bitsa, espuma.*  
 ARABERA (L), *según, conforme.*  
 ARAMAITAKO (B), *Avemarietakoa.*  
 ARGITALDARI, *editor.*  
 ARI IZAN (GLN), *jardun, zerbait egiten egon.*  
 ARROTZ (D), *kanpotarra, atzerritarra.*  
 ARTEGATASUN (B), *sosegurik eza, inquietud.*  
 ASALDATU (G), *amotinarse, rebelarse.*  
 ASTEKARI (L), *asteroko periodikua.*  
 AURTEMEIN (B), *oraintsu, denpora asko ez dala.*  
 AUSARTU (GLN), *atrebidu.*  
 BAKANDU (D), *espaciari.*  
 BALIATU (D), *servirse.*  
 BARRUTI (BG), *terreno acotado.*  
 BEIOA (B), *joan bedi, joan belte.*  
 BERAZ (GLN), *por consiguiente.*  
 BERBARAKO (B), *esate baterako.*  
 BEREZI (GLN), *separarse, distinguirse.*  
 BEREZIKI (L), *aparteko moduan, especialmente.*  
 BETIDANIK (LN), *desde tiempo inmemorial.*  
 BEZELA (GLN), *legez, lez.*  
 BURU ERAKETA, *racionalización.*  
 BUZTARRI (BLN), *yugo.*  
 BUZTARTU (BLN), *uncir, unir.*  
 DARIOE (B), *erioten jake, les mana.*  
 DIARDUE (B), *jarduten dabe.*  
 EBATZI (B), *resolver.*  
 EDE (D), *correa.*  
 EGIN EGINEAN, EGIN EGINEAN BERE (B), *exactamente.*  
 EGITAMU (B), *egiturea, estructura.*  
 EGUNKARI (L), *eguneroko periodikua.*  
 EKANDU (B), *oiturea, costumbre.*  
 EKATX (BLN), *tempestad.*  
 EKONOMI-ERIZLE, *economista, crítico de economía.*  
 EKONOMI-ZABALKETA, *expansión económica.*  
 ELBURU (D), *fin, objetivo.*  
 EMOITZA (BL), *producto.*  
 ERALGI (B), *gastar.*  
 ERANTZUPIDE, *responsabilidad.*  
 ERDIKOI, *centralista.*  
 EROSOTASUN (BG), *bereratasuna, comodidad.*  
 ERREFUSATU (L), *rehusar.*  
 ERREPIKATU (L), *repetir.*  
 ERTZAIN (B), *errizaina, polizgizona, policía.*  
 ESKUARTE (D), *recursos económicos.*  
 ETEN (D), *romper, interrumpir.*  
 EURREZEAN (B), *eurrez, oparo, ugari.*  
 EZKUR (D), *bellota; dinero.*  
 GAI (GLN), *geia, asunto, materia.*  
 GARAGARDAO (B), *cerveza.*  
 GARAI (GN), *sasoia; (D), altua.*  
 GERTAKIZUN (B), *atondu bear dana, preparativos.*  
 GERTATU (GN), *suceder; (B), preparar.*  
 GIRO (GLN), *aroa, ambiente.*  
 GORESLE (LN), *goretsi edo goratu egiten dauana, el que alaba.*  
 GORPU (B), *gorputz illa, cadáver.*  
 GRIÑA (BG), *pasión, inclinación del ánimo.*  
 GUTUN (L), *carla, misiva, escrito en general.*  
 GUZTIETARIK (B), *guztletatik.*  
 INKESTA (L), *encuesta.*  
 IRAIL (B), *septiembre.*  
 ISKILLO (B), *arma. Aintxiñako berbea.*  
 ITSUMUSTUAN (B), *itsu itsuan, irreflexivamente.*  
 JOLAS (BG), *olgetea, diversión.*  
 JOSKERA (BG), *berbak josteko modua, sintaxis.*  
 KORRONT (B), *corriente.*  
 KUTSU (GLN), *contagto, deajo, sabor, aire.*  
 LAU (B), *sencillo, llano.*  
 LAUDORIO (LN), *alabantzea.*  
 LEGERRI, *Estadua.*  
 LUGINTZA (B), *nekazaritza, labrantzea.*  
 MANDATU (D), *mensaje.*  
 MEATZ (B), *urria, bakana, eskasa.*

MEAZTU (B), *urritu, gitxitu, bakandu.*  
 MEKO MEKO (B), *makala, indarbakoa.*  
 MENDE (L), *gizaldia, sekulua.*  
 MUETA (B), *clase, género.*  
 MUKERTASUN (B), *resistencia, oposición.*  
 NABAR (D), *parido, abigarrado.*  
 NABARMEN (D), *sobresaliente, destacado.*  
 NABARMENDU (D), *sobresalir, destacarse.*  
 NEKAZARI (D), *lugiña, labrador, agricultor.*  
 OARGARRI (L), *digno de atención.*  
 OMEN (LN), *honra, honor, renombre.*  
 OMENALDI (D), *homenaje.*  
 ONDORIO (LN), *ondorena, consecuencia.*  
 OPARO (B), *ugari, abundantemente.*  
 ORRATIO (B), *orregaitiño, orraitio, sin embargo.*  
 ORREETARIK (B), *orreetatik.*  
 ORREGAITIÑO (B), *orraitio, orraitio, sin embargo.*  
 ORREN (D), *tan.*  
 OSTERA (B), *barriz.*  
 SAIATU (BGN), *alegiña egin, bermatu.*  
 SERIOSKI (L), *seriotasunagaz.*  
 SETATI (D), *terco, tercamente, obstinado, obstinadamente.*  
 TAMALGARRI (B), *lamentable.*  
 TANKERA (G), *erea, modua.*  
 TXERATSU (B), *cariñoso, acogedor.*  
 TXISTADA (B), *llamamiento con un sonido inarticulado.*  
 UIOL (BG), *riada, diluvio.*  
 URI (B), *erría.*  
 URREAN (B), *nonbait, aurki, antza, itxurea.*  
 URTIKA (BG), *lanzando, despidiendo.*  
 ZAIN EGON (BLN), *itxaroten egon.*  
 ZALANTZA (G), *ezbaia, dueda.*  
 ZENBAIT (GLN), *batzuk.*  
 ZURTU (B), *zur biurtu, arritu.*

## Martin Aldazabal

EUNAK

SOIÑEKOAK

AZPIKOIALAK

Emakume, gizon, gazte ta umeentzat  
 Baita etxerako gaiak, zatika naiz atonduta

Telefonoak: 210484 - 231285 - 231286 - 231287

Tendería, 3  
 BILBAO (5)

LANTEGI ERRAMINTAK

LANTRESNA GUZTIETARIKOAK

GALTZAIRU KALIBRATUAK

LEUNKETA GAIK

## FERRETERIA UNZETA

Apartado 18. Ibarrecruz, 14

Urrutizkiña 71 10 00

EIBAR

# EUSKAL ERRIKO KANTARI BARRIAK

Euskal kantua, gora ta gora doa. Gero ta obeago. Kantariak be, gero ta ugariago ditugu; eta zalantza\* barik, gero ta obeagoak be bai. Ikusgarria izaten da euskal jaialdi bakotxa. Gogoan ditut orain, Mondragoekoa, Bilbaokoa, Gernikakoa, Zarauzkoa: jentea irakin bearrean, olan berba egiterik badago. Seiñale ona.

Azkenaldi onetan suertez ibilli naiz. Euskal kantari batzuk ezagutzeko erea euki dot, eta ez dot alperrikaldu.

## ERLAK



«Erlak»

Neska polit, gaztetxu ta atsegín bi dira oneek. Ez diñot guzurrik; erretrotua ikusi, bestela. Lurdes kitarreagaz. Biak kantariak. Etorkizuna ba daukela euskal abestian uste dot. Biak, Joseba Gotzon Legorburugaz dabilta bazterrik bazter. Joseba Gotzon, Lurdesen osabea da. Lurdes, andereño ikasten dabil. Irurokin mintzatzen\* naiz.

—Nongoak zaree?

—Pasañ Donibaneakoak.

—«Erlak» izenorde ori nondik jatortzue?

—Arrain zuri baten izena da. Pasaikoak gara ta..., ulertuko dozu.

—Noiz asi ziñeen kantetan?

—Bost edo sei illabete dala.

—Non leenengo aldiz?

—Legazpian.

—Ta gero?

—Leku askotan entzun ditue gure abestiak: Errenderian, Oriako Alegrian, Amezketan, Lezon, Eibarren, Zarautzen, eta abar.

—Ta Bizkaian egon zaree?

—Baita, asko ez dala, Getxon.

—Sari arazoan ondo zabilte?

—Txarto be ez. Oriako Alegrian, Euskal Abestiaren leenengo saria eskuratu genduan. Eibarko Sanjoanetako norgeiagoka nagusi aretan be, azkeneraiño eldu giñan. Ta oraintsu, Bilbaoko beste sari ori.

—Ze kanta mueta abestuten dozue?

—Batzuetan gureak, eta beste batzuetan kanpokoak.

—Ta zuk, Joseba Gotzon, zer egiten dozu bikote onen artean?

—Itza ta doiñua, neuk egiten ditut; eta iñondik doiñua artzen dogunean, letrea ipintea neure kontura doa.

—Ondo da. Ta zein jatzu atsegiñago, «amodiozko» letrea ala «gogorra»?

—Bietarik erabilten dogu, zegaitik ez. Baiña gure Erriaren gaurko egoerea ikusirik, diñozun letra «gogor» ori jat begikoena.

—Diskorik?

—«Hegosa», Donostiako etxe barri orretan ataratekotan gabiltz.

—Euskal kantuaren barrutian\*, ze mandatu\*, emon gura dozue?

—Guk, musika zaarra gaurkotu egin nai geunke, ta oraingoa euskaldundu. Baiña batez be, gure Erriaren Bizkuntza ori sortu crazoten lagundu gura geunke.

—«Bejondaizuela», Gipuzkoan esaten ñan moduan.

## ITZAL URDIÑAK

Erderaz, «Sombras Azules». Erderazko izena emoten dot emen, oraiñarte erderaz ibilli dira ta. Euskal doiñuetara etorri barriak dira; ez dira euskal musikeagaz jaiok. Zarauzkoa da talde au. Lau dira taldean.

—Noiz asi ziñeen kantetan?

—Igazko Sanjoanetan, erderaz, Zarau-



«Itzal Urdiñak»

tzen. Gero beste erri batzuetan egonda gagoz: Beasainen, Bergaran, Zumarragan, Usurbilen, Orion, eta abar.

—Euskeraz asko kantatu dozue?

—Leenengo jaialdia, gaurkoa. Illabete pare bat dala-edo asi giñan Benito Lertxundiren kanta batzuekaz Orion, bere errian ain zuzen be.

—Ta?

—Tomaterik ez egoala ikusirik, animatu egin giñan.

—Ze musika klase abestuten dozue?

—Benito Lertxundirenak eta Estitxurenak.

—Euskal abestian aurrera jarraitzekotan zagoze?

—Osorik ez bada be, euskeraz kantetan jarraituko dogu, dudarik be ez.

—Bizkaian izan zaree?

—Ez, baiña Nafarroa aldera, euskeraz kantatuaz, Gabonaldian joateko gara.

—Zer ekarri gura zeunkee zuek euskal musikearen arloetara?

—Euskerazko kantuakaz, Ingalaterrako talde baten antzeokoak izan gura geunke.

Nire ustez, ba dauko inportantzia, talde au ta onen antzera erderaz asi diran onelako beste talde batzuk, gurera etortek. Onek asko esan gura dau. Gure musikea, ikusten danez, eskeko erropak erazten doa apurka apurka. Ta uste dot, emendik aurrera, artistak ez dabela euskeraz kantatuko, erriko prolemak edo abertzaletasuna sentitzen dabelako bakarrik, baita euren buruak eta izenak goian ikusi gura dituelako bere. Komertziala egingo da euskal kantua; exitu bidetik abiatuko da laster barru.

JOAN MARI TORREALDAY